



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengoa agintzea erabaki dut:

Barne promozioiko behin betiko zerrenda onartzea

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ekainaren 3ko dataz argitaratu zen Oñatiko udaleko pertsonal funtzionarioarentzat erreserbatutako C1 taldeko Idazkaritzako Administralari lanpostu bat betetzeko lehiaketa orokorraren oinarriak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2022 urteko 105. aldizkaria).

Aipatutako prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu zen eta 2022ko ekainaren 27ko dataz eman zen aurkezturikoen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Dagokion erreklamazio epea igaro ondoren, ez da alerik aurkeztu, beraz, Nik, Izaro Elorza Arregui, Oñatiko Alkatea naizenez, eta 7/1985 Legearen 21.1 g) h) eta i)- xedapenek ematen dizkidaten ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa luzatzea erabaki dut:

ALKATE DEKRETUA

Lehena. Deialdi honetara aurkeztutakoen onartu eta baztertuen BEHIN BETIKO zerrenda onartzea.

Onartuak

ZUMALDE BARRENA, ALAZNE

Baztertutak

Inor ere ez.

Bigarrena. Deialdi honen hautaketa-prozesuko Balorazio batzordeko kideak izendatzea.

Balorazio Batzordea

Batzordeburu: Iñigo Roldan Catalán jauna, Oñatiko Udal idazkaria

Kideak:

Paskual Elustondo Darpon, Oñatiko udaleko Kontu-hartzailea
Izar Salaberri Iñarra, Oñatiko udaleko Artxibozain Web masterra.
Blanca Olalde Inza, idazkaritzako administraria

Euskarako frogarako Euskaltegiko zuzendaria: Roberto Altuna Erle
Idazkari: Oñatiko Udaleko AOT—GGBB eta Antolakuntza Teknikaria

Hirugarrena. Hautaketa prozesuaren berri Oñatiko udaleko iragarki Taulan nahiz www.oñati.eus web orrian emango da.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko ekainaren 29an

Alkateak

Izaro Elorza Arregui

